



iruhēko adierazpena

**EDIZIO INDEPENDENTE
DEKOLONIAL,
EKOLOGIKO,
FEMINISTA,
LIBRE, SOLIDARIO
ETA SOZIAL
BATEN ALDE**



GURE KOMUNITATEAREKIN, GIZATERIAREKIN ETA INBURU-GIROAREKIN ENAJAIATUTAKO EDIZIO INDEPENDENTEAREN ARDE

Editore Independenteen Nazioarteko Aliantzako editoreok Iruñean bildu gara 2021eko azaroaren 23tik 26ra bitartean, **Edizio Independentearen Nazioarteko Topaketetan**, EDITARGI Nafarroako Editore Independenteen Elkartearekin lankidetzan antolatu direnak; editoreok berresten dugu honako ideia hauekin konprometitzen gara:

- liburuaren eta irakurketaren izaera **kultural, sozial eta politikoa**;
- liburuaren **demokratizazioa** gure gizarteetan;
- irakurketaren **praktika askatzailea**, hiritar kritikoak sortzen baititu, bizi diren komunitatean parte hartuko dutenak.

Akuilu dugu azken urteetan edizio independenteak izandako bultzada handia, liburuaren munduan dagoen aniztasun kulturalaren adierazle delakoan; aldi berean, ordea, badugu zenbait kezka: esate batera, eraldaketa teknologiko azkarra eta sektorean gertatzen ari den kontzentrazio gero eta handiagoa; liburuaren munduak dakarren egiturazko desberdintasuna; betikotzen ari den kolonialismo kultural hegemonikoa; eta bestelakoa den hori itotzen duten askotariko zentsura adierazpenak.

Horiek guztiak galga jartzen ari zaizkio gure gizarteetako kultur bizitzan ekitatez parte hartzeko aukerari.

Editore garen aldetik, beraz, azpimarratu nahi dugu edizio independenteak bokazioa duela liburuaren munduan gertatzen den etengabeko merkantilizazioaren presioari aurre egiteko.



KONPROMISOA HARTZEN DUGU ASMO HAUEN ARDE:

- **liburuaren adiera kultural, sozial eta politikoa sendotzea;** gisa berean berresten dugu Aliantzarekin dugun konpromisoa, esperimentatzeko eta hausnartzeko espazio bat den heinean, argitalpen praktika alternatiboak garatzeko laborategi amaigabea delakoan.
- **bibliodibertsitatea bultzatzea ikuspegi dekolonial, ekologiko, feminista, libre, solidario eta sozialetik.**
- **hizkuntza txiki edota gutxituetako edizioa sustatzea,** hizkuntzok gure komunitateetako aniztasun kulturalaren adierazgarri esanguratsuak direlakoan.
- **liburuaren ekologia dekolonial, sozial eta geopolitiko baten alde lan egitea,** liburu-munduko eragileen eta sareen interdependentziak eta zeharkako harreman ez bertikalak aintzat hartuta.
- **liburuaren inguruko lanaren izaera sozial eta solidarioa indartzea –liburua ondare komuntzat baitugu:**
 - liburuei prezio justua jartzea, ahalik eta merkeena, betiere liburuaren ekosistema kontuan hartuta eta edizio jasangarria posible eginez;
 - bidezko diru-sarrerak adostea autore eta editoreentzat;
 - argitaletxeetako langileen soldata altuenen eta baxuenen arteko aldea ahalik eta txikiena izatea, desberdintasun handirik sor ez dezaten.



- **ingurumena babesten lagunduko duten praktikak sustatzea, esate batera:**
 - gure lantokiko herrialdean inprimatzea, baldintzek uzten dutenean;
 - tiradak mugatzea, aleak alferrik ez galtzeko eta soberako izakinak saihesteko;
 - plastikorik ez erabiltzea, horrek liburuaren iraunkortasuna gehiegi kaltetuko ez badu.
- **adierazpen askatasuna eta adierazpen ekitatiboa (fair speech) indartzea:**
 - zentsura mota ororen kontra egitea (politikari, erlijioari, moralari, kulturari, sexuari, generoari nahiz merkatuari dagokiona);
 - komunikabideen pilaketa eta hitzaren kontrola salatzea, praktikan adierazpen askatasuna mugatzen baitu;
 - estigmatizazioaren eta inori gizatasuna kentzearen kontra irmoki egitea.
- **xede horien alde Editore Independenteen Nazioarteko Aliantza sendotzea, gure elkartasun sarearen, gure balio konpartituen eta gure arteko lankidetzaren dinamizatzaile den heinean.**

Adierazpen hau Nazioarteko Editore Independenteen Aliantzak aurrez egindako hausnarketei eta lanei gehitu behar zaie; zehazki, 2003ko, 2007ko eta 2014ko Adierazpenei eta bibliodibertsitatearen aldeko 80 gomendioei. Horien guztien osagarri, Jardunbide Onen Gida-liburu bat proposatuko dugu (taldean egiten ari garen lana da hori, eta 2022ko lehen seihilekoan argitaratuko dugu).